

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

102/2025 Dekretua, alkate-udalburuarena. karrerako funtzionario, udaltzaingoko lehen agente gisa, izendatzea

102 zenbakidun alkate-udalburuak 2025eko urtarrilaren 24an emandako Dekretuaren bidez, udaltzaingoko lehen agente hau izendatu da:

Ibon Urruchurtu Aldana, Laudioko Udaleko karrerako funtzionarioa, udaltzaingoko agentea, udal-kudeaketako, alkatetza-zerbitzuko, udaltzaingoko zerbitzu-unitateko, C1 taldeko, 1037 kodeko lanpostua, 2. hizkuntza-eskakizuna, 2007ko abenduaren 31ko derrigortasun-datarekin.

Interesatuak 10 eguneko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Aukerako berraztertze errekurtso hori jarri ezean, zabalik geratuko da bide judiziala; beraz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da txandaren arabera dagokion Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2025eko otsailaren 11

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ